

Zientziaren astea MUn

2013/11/11

Zientziaren astearen helburua, hiru lurraldeetako ikastetxeetatik etorritako batxilergoko ikasleei zientzia eta teknologia gerturatzea da. Aurtengo edizioan, ingeniari eta osasunarekin lotutako gaiak landuko dira.

Egun bakoitzean Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak Arrasateko Campusean martxan jarri berri duen Ingeniari eta Biomedikoaren aurkezpen batekin hasiko da. Aurkezpena 9:30etan egingo da 7. eraikuntzan. Ondoren, 10:00etatik 12:30etara, ikasleak, hiru taldetan banaturik, ingeniari eta medikoari buruzko erakusketa bat bisitatu ahal izango dute (7. eraikuntzako sarreran), non ingeniari eta biomedikoan erabiltzen diren hainbat gailu ikusiko dituzten. Jarraian, ikasleek fluidikako eta inplanteen laborategiak bisitatuko dituzte (3. eraikuntzako 3107 gela), non unibertsitatean gai honen inguruan garatzen ari diren ikerketa proiektuak ezagutzeko aukera izango duten. Bukatzeko, ikasleek *“kirola eta osasuna”* (7. Eraikuntzako 7103 gela) tailerra bisitatuko dute eta kirolean erabiltzen den teknologia biomedikoa ezagutzeko aukera izango dute.



Zientziaren Astea 2013